

**Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIAZTATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Osoko Bilkurak, 2022ko uztailaren 21ean**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Armari eta bandera aldaketaren hasierako onarpena ematea, Kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko uztailaren 11an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Armari eta bandera aldaketaren hasierako onarpena ematea.

2022ko uztailaren 11ean egindako kultura batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, kultura batzordeko idazkariak German Meabebasterretxea Arregik jaunak, ziurtatzen duenez.

**“4. OÑATIKO UDALAREN ARMARRIA ETA BANDERA.**

*189 zenbakidun alkate dekretu bidez Oñatiko udal-armariaren aldaketa espedientea jendaurrean jartzea ebatzi zen, 20 balio eguneko epean (GAO 42. zenbakia 2022/03/03). Epe horretan alegazio bat aurkeztu zen (sarrera erregistroa 1050/2022, 2022/03/29koa).*

**EAJ:** ...

*Ez dago arrazoi historikorik alegazio hori onartzeko, banderako gurutzeak hain zuzen ere...*

**BILDU. gure taldea, alegazioa onartzearen alde agertzen da.”**

Ikusita udal honetako armarrria egokitzeko izapidetutako espedientea, egintza ofizialen buru izan dadin eta Udalaren dokumentuetan zigilu gisa erabil dadin.

Behar ziren ikerketa-lanak EUSKO IKASKUNTZARI agindu zitzaizkion, dagokion armariaren proiektua idatzi, memoria historiko-heraldikoa eta dagozkion diseinuak bildu eta Udal honen berezitasun aski adierazgarriak jaso zitzaizkion. EUSKO IKASKUNTZAK txostena prestatu zuen eta web gunean zintzilikatu zen.

189 zenbakidun alkate dekretu bidez Oñatiko udal-armariaren aldaketa espedientea jendaurrean jartzea ebatzi zen, 20 balio eguneko epean (GAO 42. zenbakia 2022/03/03). Epe horretan alegazio bat aurkeztu zen (sarrera erregistroa 1050/2022, 2022/03/29koa).

Alegazio horren aurrean EUSKO IKASKUNTZAK txosten berri bat eman zuen, 2022ko apirilaren 5koa.

Kontuan hartuta: Osoko Bilkurak eskumena du bandera edo armarrria onartzeko, bere eskumenen barruan, eta, gainera, erabakia gehiengo osoz hartu behar da (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, 22.2.b) eta 47.2 e artikulua).

Udaleko idazkariaren 25/2022 txostena, uztailaren 18koa, dago espedientean.

Halaber, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 187. artikulua honako hau arautzen du:

*“Udalaren armari heraldikoa onartzeko, Udaltzatzen erabakia hartu behar du, eta armari berriaren proiektua marraztu, Historiaren Errege Akademiaren txostena egin eta autonomia-erkidegoko gobernu-organo eskudunak onartu behar du.”*

Ikusita EUSKO IKASKUNTZAK aurkeztutako Oñatiko udal-armariaren txostena, memoria historiko-heraldikoa oinarrituta, non diseinu berri bat proposatzen den.



Kontuan hartuta: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua dioena.

Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren **37. artikuluari** jarraikiz, espediente hori behin betiko ebatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari (Gobernantza Departamentuari) dagokio.

Gaia azterturik, eta kultura batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Hasierako entzunaldi epean aurkeztutako alegazioa onartzea eta udalak berea egitea, armarría eta banderaren hasierako proiektua aldatzeko, San Andres gurutzeak banderatik ezabatuz.

**Bigarrena.**- Hasierako onarpena ematea Oñati Udaleko bandera eta armarrí aldaketari, 2022ko apirilaren 5ko Eusko Ikaskuntzak aurkeztutako Oñatiko udal-armarriaren txostena ikusita eta memoria historiko-heraldikoarekin eta bertan jasotako diseinuarekin bat etorritz. Deskribapena honakoa izango litzateke:



Armariaren deskribapena: “Armarri biribila edo espainiarra. Gorria, oreina (urrezkoa), ibilian, burua jiratua, adarduna, mingain gorria; haren gainean, arrano beltza, ertz zuriak, hegoak zabalik; oinetan, urrezko galburuak; zelai berdean hesolak (urrezkoa). Goiko zerrenda zuria (zilarrezkoa) bitan banatua: lehenengoan, arrano beltza hegaldia hartzeko jarreran; bigarreanean, oreina ibilian, ertz beltzak, adarduna, mingain gorria.”

Descripcion del escudo: “Escudo redondeado o de forma española. De gules (rojo), ciervo de oro (amarillo), pasante, contornado, ramado, lampasado de gules (rojo), sumado en el lomo de águila de sable (negro), fileteada

*de plata (blanco), explayada, con campo de espigas de oro (amarillas) a los pies del ciervo; campaña de sinople (verde) cargada de palizada de oro (amarillo). Jefe de plata (blanco), partido de dos cuarteles: en el primero, águila azorada de sable (negro); segundo, ciervo pasante de oro (amarillo), fileteado de sable (negro), ramado y lampasado de gules (rojo) ”*

Banderaren deskribapena: *“Bandera angeluzuzena, 2:3 proportzioak dituena. Erdian, udal-armarria, bere metal eta koloreekin.”*

Descripcion de la bandera: *“Bandera rectangular de dimensiones 2:3 blanca. En abismo, el escudo municipal, en sus metales y colores”.*”

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta Eusko Ikaskuntzaren txostena jendaurrean jartzea 20 egun baliouduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkiak jarritz. Halaber, txostena eskuragarri egongo da udalaren egoitza elektronikoan, bitarteko elektronikoen bidez eskatzen duen ororentzat.

Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute, eta osoko bilkurari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Kasu honetan, espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko zaio, behin betiko ebazpena eman dezan. Bestela, Osoko Bilkurak beharrezkoa duen epea izango du erreklamazioak ebazteko eta behin betiko erabakia hartzeko.

---

Gaia aztertuta, eta kultura batzorde informatiboaren irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena gehiengo osoz onartu da. Aldeko botoak: 9 (9 EH BILDU). Aurkako botoak: 7 (7 EAJ).

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araber.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitallean ageri den datan.**

O.E.  
ALKATEA

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan

